



KALAPUTXI

Mutrikuko herri-aldizkaria
2025eko urtarrila - 256 zkia.

Pakita Itxaso Alberdi

Jostorratza eta haria dantzan

GAZTETXOEK TELEFONOA ZENTZUZ ERABILTZEA HELBURU • KALAPETATZEN IKASTEN
MENDEEK EZINA, SUAK EGINA • ONIRIA: AMETSAK ERREALITATE BIHURTZEN

Samiela
Eskola matrikuarra

Matrikulazio epea Zabalik!

OTSAILAREN

3TIK-14RA



**BISITA
PERTSONALIZATUAK**

IZEN-EMATEAK: zuzendaritza@samiela.eus | 943 60 31 95

Telefonoak

Osasuna

COVID-19 KORONABIRUSA

OSASUN AHOLKURAKO TEL. ... 900 20 30 50

Larrialdiak.....	943 46 11 11
Anbulatorioa.....	943 60 43 00
DYA zentrala.....	943 46 46 22
Mendaroko ospitala	943 03 28 00
Alzheimer elkarteak	943 29 71 18

Botikak

Lasuen-Elezgarai	943 19 50 26 / 626 61 13 92
Lon Apraiz	943 60 32 50 / 630 05 50 97
Amaia Zalduegi	669 26 22 01
Hiart Burgoa	667 33 88 90
Arantzazu Izpizua (Eibar)	943 20 19 12

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea	943 60 32 44
Udaltzaingoa	943 60 70 48 / 679 16 25 00
Gizarte Ongizatea	943 19 50 81
Anai Arte bulegoa	943 60 42 47
Anai Arte taberna	943 60 34 10
Mikel Deuna Zaharren Egoitza	943 60 38 71
Eguneko Zentroa	943 60 38 71
Turismo Bulegoa	943 60 33 78
Bake epaitegia	943 60 70 49
Kiroldegia	943 60 31 75
Liburutegia	943 60 41 82
Miruaiz pilotalekua	943 60 41 91
Ur Kontsultazioa	943 00 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak	943 70 07 99
Posta zerbitzua	943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola	943 89 91 52
San Miguel Ikastetxea	943 60 31 95
Mutrikuko BHI Institutua	943 89 92 24
Kardala Akuakultura Institutua	943 60 71 37
Udal Euskaltegia	943 60 30 94
Udal Musika Eskola	943 60 37 80
Haurreskola publikoa	943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

ANSOLA taxia	638 67 23 83
Lurraldebus	943 41 52 08
Pesa Autobusak	900 12 14 00
Bizkaibus	902 22 22 65
EuskoTren	944 333 333
Loiuko Aireportua	905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia	943 60 39 87
----------------	--------------

Iritzixa

Unai Belaustegi Bedialauneta

101 URTE

Igandeko inaugurazio ekitaldiaren harira, egun horietako ospakizun nagusienak deskribatzen saiatuko gara, baina gertatutakora hurbiltzeko benetako asmorik gabe. Izan ere, festak edozein aurreikuspen gainditu zituen.

Hilaren 12an, gauaz, itxapleru ugari jaurti ziren eta herriko banda ohoretuak kontzertua eskaini zuen. Hilaren 13an, igandea, egunsentitik hasita berriro itxapleruak entzun ziren eta musika bandak herriko kaleak alaitzen jarraitu zuen. Goizeko bederatziak eta erdietan, agintariak udaletxean elkartu ziren. Han, Rafael Galarraga ikasle gazteak hitzaldi hunkigarria eskaini eta mutrikuarrek marinelei dieten maitasuna azpimarratu zuen: sakrifizioaren, nobleziaren eta lanaren espiritua mantentzen dute marinelok!

Elizako atarian argazkia atera ostean agintariak, musika bandak eta herritarrek lagunduta, portura jaitsi ziren. Inaugurazio mezaren ondoren, eraikinak goiko solairuan zuen areto "ikusgarrian" elkartu ziren. Eibarko Apaizak, Policarpo Larrañagak, Mutrikuk arrantzarako grina mantentzen duela azpimarratu eta horren adibide, eraikina bera jarri zuen.

Bederatzi urtetan jo eta su aritu dira mutrikuarrek proiektua errealitate bihurtu zedin. Urte hauetan zehar, kofradiak 13.000 pezetatiko zorra pilatu du eta, besteak beste, arrantza eskolari, helduei eta gaixoei laguntzeko gordetzen zituzten baliabideak xahutu ditu. Jenaro Piquer alkatearen ostean, Juan Barrenecheak hitza eman zuen arrantzaleak beti gogoan izango zituztela.

Eguerdian ia 300 lagun inguru elkartu ziren bazkaltzeko. Tartean, Ondarruko marinel talde bat. Dirudienaz, Mutrikuko eta Ondarruko arrantzaleak haserre zebiltzan itsasoko zenbait kontu medio. Horri erreparatuz, bazkalostean, Joaquín Cendoyak, Gipuzkoako Kofradien Elkartearen presidentea, batzuei eta besteei bakeak egiteko eskatu zien. Cendoyari kasu eginez, eta txalo zaparrada baten azpian, elkar besarkatu ziren.

Jarraian, Goiko Plazan, aureskua dantzatu eta mutrikuarrek festan jarraitu zuten: "Alamedako plazan", tanborilak lagunduta, gogoz egin zuten dantzan. Ospakizunok astelehenera arte luzatu ziren.

Hauze 1924ko urtarilaren 15eko egunkari ezberdinetan kaleratutako kroniken laburpena. Kofraixa Zarraren inaugurazioaz ari ziren. Ziur nago ez zutela imajinatu ere egingo hainbeste ospatu zuten baina batez ere hainbeste kostatu zitzairen eraikina horrela egongo zenik. Are gutxiago herriaren eta itsasoaren artean halako pareta altxatuko zutenik. Kroniketako batek zioen bezala, "Bravo mutrikuarraz!".

Argitaratzailea

Karenka Komunikazio Elkarteak
Barrenkale 12, behea
20830 Mutriku

Tel. 635 748 393

e-posta aldizkaria@kalaputxi.eus

Webgunea: www.kalaputxi.eus

Bloga www.kalaputxi.blogspot.com

Laguntzailea **Mutrikuko Udala**

Kolaboratzaileak

Josu Larrañaga, Inhar Mutiozabal,
Jose Angel Lizardi

Tirada 2.200 ale

Lege Gordailua **SS-787/01**

ISSN **1579-4792**

Inprimategia **EUSKALINPRI**

Banaketa **Kalaputxi**

Kalaputxi Herri-Aldizkariak
Mutrikuko Udalaren dirulaguntza
jasotzen du:



Mutrikuko Udala



astelehenetik ostiralera								
DB03	LEKEITIO - DONOSTIA							
Lekeitio	6:15	9:50	12:50	17:50	20:00			
Ondarroa	6:40	10:15	13:15	18:15	20:25			
Mutriku	6:45	10:20	13:20	18:20	20:30			
Donostia	* 7:55	11:30	14:30	19:30	---	* Unibertsitatetik		
DB03	DONOSTIA - LEKEITIO							
Donostia	8:00	11:00	* 14:30	18:00	20:30	* Unibertsitatetik		
Mutriku	8:50	11:50	15:25	18:50	21:20			
Lekeitio	9:35	12:35	16:10	19:35	22:05			
DB04	ONDARROA - MALLABIA							
Mutriku	7:15	orduro	20:15	21:25	22:15	22:45		
Mendaro	7:50	orduro	20:50	22:05	22:25	22:55		
Eibar	8:15	orduro	21:15	22:30	22:45	23:15		
Mallabia	8:30	orduro	21:30	22:45	---	---		
OSTIRAL GAUEAN Mutrikutik: 23:25; 01:15.								
DB04	MALLABIA - ONDARROA							lanegun ostiraletan
Mallabia	6:00	6:45	orduro	20:45	21:25	* 22:05		
Eibar	6:05	7:05	orduro	21:05	22:10	22:15		
Mendaro	6:35	7:35	orduro	21:35	22:20	22:30		
Mutriku	6:55	7:55	orduro	21:55	22:30	22:40		
OSTIRAL GAUEAN Mutrikura heldu: 00:25. (Eibarren -25 min.)								
DB05	MUTRIKU - ZUMAIA							
Mutriku	6:25	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25		
Deba	6:40	9:45	11:40	13:40	16:40	18:40		
Zumaia	7:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10		
DB05	ZUMAIA - MUTRIKU							
Zumaia	8:10	10:10	12:10	15:10	17:10			
Deba ^{35 min. zain}	8:40	10:40	12:40	15:40	17:40			
Mutriku	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25			
DB06	ONDARROA - SORALUZE							
Mutriku	8:45	10:45	12:45	14:45	17:45	19:45	21:45	
Mendaro	9:15	11:15	13:15	15:15	18:15	20:15	22:15	
Soraluze	9:40	11:40	13:40	15:40	18:40	20:40	22:40	
DB06	SORALUZE - ONDARROA							
Soraluze	7:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40	20:40	
Elgoibar	7:45	9:45	11:45	13:45	16:45	18:45	20:45	
Mendaro	8:00	10:00	12:00	14:00	17:00	19:00	21:00	
Mutriku	8:20	10:20	12:20	14:20	17:20	19:20	21:20	

larunbat, igande eta jai-egunak							
DB03	LEKEITIO - DONOSTIA						
Lekeitio	8:00	12:30	17:00	19:00			
Ondarroa	8:25	12:55	17:25	19:25			
Mutriku	8:30	13:00	17:30	19:30			
Donostia	9:40	14:10	18:40	20:10			
DB03	DONOSTIA - LEKEITIO						
Donostia	10:30	14:30	17:00	20:30	21:00		
Mutriku	11:20	15:20	17:50	21:20	21:50		
Lekeitio	12:05	16:05	18:35	22:05	22:35		
DB04	ONDARROA - MALLABIA						
Mutriku	7:15	8:15	orduro	20:15	21:25	22:15	
Mendaro	7:45	8:45	orduro	20:45	22:05	22:25	
Eibar	8:10	9:10	orduro	21:10	22:30	22:45	
Mallabia	8:25	9:25	orduro	21:25	22:45	---	
LARUNBAT GAUEAN Mutrikutik: 23:25, 23:55, 01:55, 03:55, 05:55.							
DB04	MALLABIA - ONDARROA						
Mallabia	6:50	7:45	orduro	19:45	20:45	21:45	22:00
Eibar	7:00	8:00	orduro	20:00	21:00	22:00	22:15
Mendaro	7:35	8:35	orduro	20:35	21:35	22:35	22:40
Mutriku	7:55	8:55	orduro	20:55	21:55	22:55	23:00
LARUNBAT GAUEAN Mutrikura heldu: 01:10; 03:10; 05:10; 06:10. (Eibarren -25 min.)							
DB05	MUTRIKU - ZUMAIA						
Mutriku	8:25	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25
Deba	8:40	10:40	12:40	14:40	16:40	18:40	20:40
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	21:10
DB05	ZUMAIA - MUTRIKU						
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	22:10
Deba	9:40	11:40	13:40	15:40	17:40	19:40	22:40
Mutriku	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25	23:25
DB06	ONDARROA - SORALUZE						
Mutriku	9:45	11:45	13:45	17:45	19:45	21:45	
Mendaro	10:20	12:20	14:20	18:20	20:20	22:20	
Soraluze	10:40	12:40	14:40	18:40	20:40	22:40	
DB06	SORALUZE - ONDARROA						
Soraluze	8:40	10:40	12:40	16:40	18:40	20:40	
Elgoibar	8:45	10:45	12:45	16:45	18:45	20:45	
Mendaro	9:00	11:00	13:00	17:00	19:00	21:00	
Mutriku	9:20	11:20	13:20	17:20	19:20	21:20	

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero		Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
BILBOTIK		7:00	20:00	DonostiaTIK	5:50	7:50	20:50
Eibar	6:14	7:14	21:14	Errekalde	5:59	7:59	20:59
Elgoibar	6:24	7:24	21:24	Orio	6:14	8:14	21:14
Mendaro	6:33	7:33	21:33	Zarautz	6:20	8:20	21:20
DEBA	6:44	7:44	21:44	Zumaia	6:29	8:29	21:29
Zumaia	7:00	8:00	22:00	DEBA	6:43	8:43	21:43
Zarautz	7:08	8:08	22:08	Mendaro	6:52	8:52	21:52
Orio	7:15	8:15	22:15	Elgoibar	7:01	9:01	22:01
Errekalde	7:29	8:29	22:29	Eibar	7:11	9:11	22:11
Donostia	7:38	8:38	22:38	Bilbo	8:20	10:20	23:20

ONDARROA - BILBO			BILBO - ONDARROA		
astelehenetik ostiralera			astelehenetik ostiralera		
	lehena	azkena		lehena	azkena
A3916 Ermuatik	5:40	19:40	A3916 Ermuatik	7:10	22:10
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25			Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 Durangotik	6:10	20:10	A3915 Durangotik	7:40	21:40
Ondarroatik Bilbora zuzenean: 6:30; 7:30					
jai egunak			jai egunak		
A3916 Ermuatik	6:40	20:40	A3916 Ermuatik	8:10	22:10
A3915 Durangotik	7:10	20:10	A3915 Durangotik	8:40	21:40

Mutrikuko erraldoi eta buruhaundixen konpartsiai

Badia 21 urte nere aitzak erraldoi eta buruhaundixak sortu zitxua-netik. Handik eta hemendik, lagun talde bat batu, eta, dantzan jakin gabe, Mutrikuko kaliak alaitxasunez janzea atea ziñatenetik. Muxu-truk, herritxarrak herritxarrentzat!

Baiña, Mutrikuko umien arpeixetan irribarria marraztiz gaiñ; heurengan herri izaeria ta nortasuna eraikitzen jun zeate. Kalejira bakoitzian, euskeriakiko eta herrixakiko maitxasuna zabaltzen. Mutrikuar txikixak, eta ez hain txikixak, maitxe ditxue erraldoiak, beuren dantzak, kondairak, buruhaundixen bihurrikerixak... Harro sentitzen dia mutrikuar eta euskaldun izatiaz, eta zuek hortan zerikusi haundixa euki dezue.

Herrigintzan eindakua gitxi balitz, Mutriku, euskeria eta euskal kulturua nazioarte ere zabaldu dezue. Zeuen lana ta familixak hemen utzitxa, Akerbeltzekin batea gure ondaria Europan zihar ezagutaraztea jun zeate. Munduko txoko ezberdinetatik Veneziako "LA BIENNALE" erakusketa hurbildu dianai, gure herrixan aberastasuna erakusteko.

Zeuei esker, nere aitzak bizitzan utzitxako ondariak bizirik jarraitzeu; erraldoien gonak astindutako buelta bakoitzian, dantza bakoitzian, korrikaldi bakoitzian...

Badakitx hitz hutsakin ezin dala eskertu zuek egindako lan dana... Baina erraldoi eta buruhaundixen konpartsako kide izandakuai, kide zeatenai eta jada gure artian eztozen kidiai ere, mila mila esker!

ERRALDOIAK ZEATE!

Nahia Andonegi Gonzalez

Idatzia

40.000 palestinar baino gehiago erail ditu Israelgo estatu terroristak Europaren laguntzarekin. 2024an, egunean 30 pertsona hil dira Afrikatik Europa heldu nahian eta aldi berean, pertsona migranteak azkarrago kanporatzeko legeria berria prestatzen ari da Espainiako Gobernuak. Gainera, eskuin muturreko alderdien gobernuak gora egin dute, Frantzia eta Italia esaterako. Kaleetan ideia arrazista, matxista eta LGTBI kolektiboaren kontrakoak nabarmentzen ari dira. Sare sozialetan esku hartzen den edukien erdia pornografikoak dira.

Euskal Herrian seierailketa matxistak gertatu dira 2024an eta 2023an baino % 8 emakume gehiago dira EAEn eraso matxistaren bat jasan dutenak. Zortzi orduro etxegabetzen dute norbait EAEn. Eraso arrazista izugarriak eman dira Baionan eta Arrigorriagan. Donostian Afari Solidarioak debekatu dituzte. Propaganda faxista ari da etengabe

HARPIDETZAK 2025

Mutrikutik kanpo bizi den lagun bati Kalaputxi bidali nahi dionak hemen du aukera. Hamaika aldizkari urtean.

Kalaputxira bidali beharrekoak (aldizkaria@kalaputxi.eus helbidera edo [Ansozregi oinetako dendan](#) sobre batean sartuta):

NORK ESKATZEN DUEN

Izen-abizenak eta telefonoa (e-posta ere bai, nahi bada)

NORI BIDALI NAHI ZAION

Izen-abizenak, helbidea, posta kodea eta herria.

ORDAINAGIRIAREN KOPIA

Jarraiko kontu zenbakian dagokion kopuruaren ordainketa egin izanaren ordainagiriaren kopia.

Laboral Kutxa ES70 3035 0188 91 1880017087

(Titularra: Karenka Komunikazio Elkartea)

Hego Euskal Herria eta Estatua, 15 euro
Europa, 30 euro; Mundua, 50 euro

agertzen sare sozialetan eta gure herrietako paretetan.

Hauek bizi dugun garaia adibide batzuk baino ez dira. Faxismo berri baten zabalpena ikusten ari gara eta Euskal Herria ez dago hortik salbu. Gerra eta faxismoa zabaltzen ari diren honetan, kaleak hartu behar ditugu, berandu izan baino lehen. Bide horretan, gazteoi gerra eta faxismoaren aurkako borrokan lehen lerroan egotea dagokigu. Balio dezala urtarilak 25eko mobilizazioak gure kaleak faxismoz garbitu eta gizarte berri bat eraikitze borrokarako grinez betetzeko. Mutrikutik bide horretan jarduteko erantzunkizuna hartzen dugu.

Gerraren, langileon pobretzearen eta faxismoaren gorakadaren aurka urtarilaren 25ean Bilbon mobilizatzea deitzen dugu. U25 Bilbora!

*Mutrikutik autobusa: Urtarrilak 25ean, 16:00etan, Rotondan.

GKS Mutriku

Kalaputxi aldizkariak irakurleen gutunak plazaratzen ditu. Gutunak izen abizenekin bidaliko dira posta arruntez edo posta elektronikoz aldizkaria@kalaputxi.eus helbidera. Aldizkariak ez du zertan bere egin idatzien edukia.



Nahiz eta denontzat gogorra izan
zure hutsune mingotsa,
oroimenean gorde dugu zuk erakutsitakoa.
Gurekin zaude JUANO, ez zara joan.



GOIZEKO IZARRA ANTZERKI TALDEA

Gaztetxoek telefonoa zentzuz erabiltzea helburu

Abenduan hasi eta urtebeteko iraupena izango duen kanpaina berria martxan jarri dute **Altzau Burua** taldekoek udalarekin elkarlanean; «**Gurea erabil dezakezu**» kanpaina hain zuzen ere. Kanpaina 8 eta 16 urte bitarteko haur eta nerabeei zuzenduta dago. Eman diren urratsen abiapuntu nagusia haur eta nerabeei mugikorra erabiltzeko beharra murriztea dela aipatu behar da. Altzau Burua taldeak abian jarri duen kanpaina hau ez da ekimen isolatua, izan ere, alde aurretik Hezkuntza komunitatearekin eta udalarekin elkarlanean burutu ditu hainbat ekintza eta haien jarraipen bat da. Alegia, familiekin, ikastetxeekin, eta haur zein nerabeekin aurrez lanketa egin da. Horren emaitzen adibide ditugu ikasturte honetan ikastetxeek hartu dituzten neurriak, eta ikasleek eman dituzten erantzunak.

IKASTETXEAK ARNASGUNE

Hainbat neurri hartu dira Lehen Hezkuntzako herriko bi ikastetxetan arnasmune bihurtu daitezkeen. Neurri horiek abian jarri eta eraginkorrak izan daitezkeen, familien babesa beharrezkoa dela ere aipatu dute. Horregatik, neurri horiekin bat egitea eskatzen zaie: eskola eremua mugikorrak gabeko arnasmune bihurtzen laguntzea da helburua. Hartu diren neurrien artean hau da lehendabizikoa: Ikasleek ezin izango dute eskolara ekarri internetera sarbidea, deiak egin eta jaso, mezuak idatzi eta jaso, eta irudiak-argazkiak egitea ahalbidetzen duen gailu pertsonalik (smartphone, smartwach, tableta, ordenagailu, bideokontsola eramangarri, argazki kamera digital, mp3-mp4...). Hori horrela, eskolako orduetan familia eta seme-alaben arteko harremana bermatzeko, ikastetxeko telefonoa erabiliko da. Horrez gain, irakasleak ere eredu izango dira: Irakasleek aipaturiko gailuen erabilpena ahalik eta gehien saihestuko dute. Irakasleek, eredu izanik, ezin izango dituzte telefono mugikorrak agerian izan, soinuarekin eduki, edota ikasleen aurrean erabili. Kontuan izan behar da ikastetxeko gailuekin sortzen diren edukiak eskola materialak direla eta ezin direla beste hedabideetan zabaldu.

DATU ESANGURATSUAK


Pasa den ikasturtean Miren Ros hezitzaileak herriko bi ikastetxetan pantaila eta mugikorraren inguruan lanketa egin zuen; Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailako haurrekin hain zuzen ere. Aurten, lanketarekin jarraitu du, baina, oraingo honetan laugarren mailako ikasleak ere gehitu zaizkie. Hona hemen lanketaren ondorioz nabarmentzen diren datuak:




Adinean aurrera goazela, arazo gehiago ezagutzen dituzte.

Mugikorrarekin lotutako arazorik bizi/ezagutzen duzu?

Adinaren arabera igotzen doa erantzun positiboaren kopurua.



Mugikor propioaren bilakaera. Iaztik aurtengora nabarmen jaitsi da kopurua. Gaur egun seigarren mailan dauden ikasle gehienek ez dute mugikorrak.



Noiz erosiko dizute mugikorra? Hemen agertzen diren erantzunak ikasleen erantzunak dira. Gehiengo batek 16 urtetik aurrera erosiko zaiola esaten du. Beraz, «zergatik erosiko diogu guk lehenago?» da Altzau Burua taldekoen galdera. Eta, hau ondorioa: Urtebete labur batean, emaitza oso desberdinak jaso dira, datuak askoz hobeak dira. Jarrai dezagun horrela, elkarlanean, taldean, honela lortuko baitugu gure haur eta nerabeak babestea, aske hazi, garatu eta bizi daitezkeen!

MUTRIKUKO TANATORIOA

Iriagirre z/g

Tel.: 646 351 352 - 943 60 47 78
943 20 10 95 (24 ordu)

APALLU ITURGINTZA

Tel.: 600 316 381 - 943 02 98 61
San Agustín,3 - Mutriku

apallu@apallu.es www.apallu.es

Altzau Burua taldeak, Mutrikuko Udalarekin elkarlanean, «Gurea erabil dezakezu» kanpaina abiatu du herri mailan. Kanpainan parte hartzera gonbidatu nahi zaitugu, eta informazio esanguratsuen helarazten dizugu.

ZERTAN DATZA KANPAINA

Kanpainan parte hartzen duten zerbitzu publiko, saltoki eta establezimendu desberdinek haur-nerabeari telefonoa eskuragarri jarriko diote honek beharrezkoa badu.

Kanpainako partaideek «Gurea erabil dezakezu» jartzen duen pegatina identifikagarria izango dute.

Kanpaina abenduan hasiko da eta urtebeteko iraupena izango du. Urtebetera baloratu eta erabakiko da etorkizunearn nola jarraitu.

HELBURUAK

- Haurrei mugikorra erabiltzeko beharra murriztea.
- Haurrek esparru publikoa berreskuratu eta erabiltzea; kaleak eta auzoak ezagutzea eta seguru sentitzea.
- Komunitateko kideen laguntza, babesa eta koordinazioa indartzea. Zaintza komunitarioa sustatzea.
- Heldu-erreferentzia gehiago izatea; gizarte-sarea indartzea.

Kanpaina 8 eta 16 urteko haur eta nerabeei zuzenduta dago.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK ETA KONPROMISOA

- Pegatina leku ikusgarrian jartzea, kanpotik erraz ikusten dela.
- Telefono finko bat edo telefono mugikorra izatea.
- Haurrari edo nerabeari ahalik eta azkarren erantzutea, ez zain uztea.
- Datu jasoketa egitea. Taula batean jaso zenbat haurrek eskatzen duten telefonoz deitzea.

NOLA PARTE-HARTU

Kanpainako kide izateko bi bide daude:

- Herriko merkatarik elkartearen bitartez (Bertan).
- Altzau Burua Mutriku taldearekin harremanetan jarritz:

Emaillez: altzauburuamutriku@gmail.com

Telefonoz: 656749124

«Gurea erabil dezakezu» kanpaina abian da

KIDE IZATEKO EMAN BEHARREKO DATUAK

Komertzioaren izena, arduradunaren izena eta telefonoa.

IZEN-EMATE EPEA

Abenduaren 20a baino lehen egitea gomendatzen da, baina, hala ere, urte osoan zabalik egongo da.


Mutrikuko Udaleko Hezkuntza Arloak eta Altzau Burua Mutriku taldeak kanpainako kide guztien erregistroa eramango dute. Behin izena emanda pegatina eskuratuko da.



zure negoziaren berri
mutrikuar guztiei emateko

KALAPUTXI

aldizkaria@kalaputxi.eus



GITARRA KLASEAK GAZTETXIAN

Urrixan gitarra klasiak eskaintzen hasi giñan Gaztetxian eta talde txiki bat hasi da martxan. Hala ere, orainguan deialdixa zabaldu nahi izan degu berriz, herritar gehixo animatzeko. Otsaillian hasiko gera berriz martxan baiña oraingo hontan bi talde desberdiñ egingo ditzugu: talde bat hasi berrixentzat izango da, eta bestia oiñarrizko mailla bat daken pertsonentzat. Talde bakoitzak bi astian behin izango deus bere saiua.

Hasteko, hurrengo honek izango dia otsaillian eta martxuan egongo diran saiua:

Hasi-berrixentzat: otsaillak 8, otsaillak 22, martxuak 13 eta martxuak 29.

Oiñarrizko mailladunentzat: otsaillak 15, martxuak 8 eta martxuak 22.

Saio danak goizeko 12:00xetan izango dia Gaztetxian.

Edozeiñek ikasteko interesa baldin badeu, ez euki zalantzaik eta gerturatu Gaztetxera.

*Gitarria biharrezkua izango da klasietako; ez badakazu, abisatu sare sozialetatik edo asanbladako kide batekin kontaktatu.

Gazte Asanbladia

Samuela
Escola multikulturala

**HAUR
MASAJE
TAILERRAK**

HAUR MASAJEA
ETA HAURRAREN
GARAPENAREN
INGURUKO
SOLASALDIA

0-12 hilabeteko haur eta familientzat

Haurdunentzat

Datak: Otsailak 3 eta 10
Ordua: 16:30

IZEN-EMATEAK: zuzendaritza@samiela.eus | 943 60 31 95

UKIMENAREN BITARTEZ HAUR ETA FAMILIEN ARTEKO LOTURA SENDOTZEN

Otsailean hasita **HAUR MASAJE IKASTARO IREKIA** antolatu da Samielan eta interesa duen edonork parte hartu ahal izango du ikastaroan.

Haur masajeak onura asko ditu, hala nola, haurra eta bere guraso edota familiaren arteko lotura afektiboa sendotzen da, tentsio fisiko eta emozionalak askatzen laguntzen du, kolikoak eta haizeak baretzen ditu, erlajatzea errazten du eta digestio sistema erregulatzen laguntzen du.

Masajeak dituen onurez gain, gure seme-alaben heziketan garrantzitsuak diren beste hainbat gairen inguruko solasaldiez gozatzeko aukera ere izango da saio hauetan; adibidez, haurren garapen psikomotorea, haurrak bere ingurunea esploratzeak duen garrantzia, etab. Saioak astelehen arratsaldeetan izango dira (otsailak 3 eta 10) Samielako Haur Eskolan, 16:30etan hasi eta ordu beteko iraupenarekin, gutxi gorabehera.

NOIZ: OTSAILAK 3 eta 10.

NORI ZUZENDUA: 0-1 urte bitarteko haur eta familiei eta haurdun dauden familiei. Interesa duen edonori zuzendua.

IKASTARORA EKARRI BEHARREKOA: Arropa erosoa (haurrak eta familiak), eta toaila bat.

PREZIOA: 40 €

Talde mugatuak izango direnez, interesa duenak **943 60 31 95** telefono zenbakira deitu, edo idatzi dezala helbide elektroniko honetara: **zuzendaritza@samiela.eus**.

egin zaitez
HITZA *kide*
Guztion ahotsa plazara

ospakizunak, bazkariak, bataioak, eguneko menua...
SAN JUAN JATETXEA
Mutriku-Deba errepidea, Laranga auzoa
Tel.: 943603167 (jatetxekoa)

APURKETAK ETA APURKETAK...

Merkatu plaza berritua inauguratu eta jendearentzat zabaldu zenean, batek baino gehiagok pentsatu eta esan zuen «aber zenbat denbora etxen doan apurtu gabe... Zainduko gendukez, ba, danon gauzak norperanak balira bezela!». Beste askok pentsatu eta esan zuten «bai zera! Hain politxa geatu dana zainduko degu denok ere!».

Kontuak kontu, guztiontzako espazioetan erabilera okerrak errepikatzen ari dira, edukazio falta handiz eta denontzako gauzak errespetuz tratatzeko intentzio txikiarik gabe. Tamalez, Merkatu plaza barruan eta komunean gertatutakoak kalean ere gertatzen dira... Gabon jaietan petardoak egunero eta edonon botata erakutsitako errespetu falta izugarria, adibidez, edadetuen, osasun ahulekoen edota animalien aurrean.

Astakeriak egiteko norberaren askatasunari helduko diote batzuek, baina hobe genuke guztiok ere, gure ekintzen bitartez askorentzako kaltea dakargula pentsatzea.

Asko dago oraindik egiteko, etxeetan hasita, eskoletan jarraituta eta kaleetan amaituta.



KOMUNITATE ENERGETIKOAREN HASIERA

Udalak Mutrikuko Komunitate Energetikoa abian jarri nahi du herritarrekin batera. Hori dela eta, **otsailaren 4an arratsaldeko 18:00etan Luardon** egingo den aurkezpenera herritar guztiak gonbidatu nahi ditu Udaleko Energia Sailak. Aurreikuspenen arabera, Komunitatea martxan ipintzeko lanketak 6 hilabete inguruko iraupena izango du eta bi astean behin batuko dira lantaldea osatuko dutenak, gutxi gorabehera 10 saio egiteko. Goiener taldearen gidaritzapean **helburua mutrikuarrak energiaren arloan ahalduntzea** izanik, lansaioetan aholkularitza juridiko teknikoa jasoko dute herritarrek.

Definizioz, komunitate energetikoa pertsonak, enpresa txikiak, elkarteak eta tokiko erakunde publikoak biltzen dituen erakunde juridikoa da; elkarte edo kooperatiba, normalean. Kontsumitzaile bakoitza iturri berriztagarrietatik energia kontsumitzen hastea izan ohi da honelako komunitateek jorratu ohi duten lehen bidea, beti ere, gertuko onura soziala, ingurumenekoa eta ekonomikoa bilatuz. Azken finean, energia guztion eta guztiontzat izatea.

Zoritzarrez, orain arte energiaren munduan ez da herritarrok esku hartzeko aukerarik izan, beraz, normala da komunitate energetikoaren gaia arrotza egitea. Dena den, **egoera aldatzeko garaia** dela uste duenak eta **eraldaketaren parte** izan nahi duenak, Luardon eskainiko diren lansaioetan parte hartzera animatu nahi dira.

Ea epe motzean Mutrikun sortutako energia herrian bertan kontsumitzeko aukera dugun!



KALAPUTXI
Mutrikuko Herri-aldizkaria



www.kalaputxi.eus



aldizkaria@kalaputxi.eus



635 74 83 93

ARGAZKI ZAHARREN LIBURU BERRIA

«Mutriku eta mutrikuarrak argazkitan II» izenburu duen liburuan 900 argazki baino gehiago jaso ditu Kalaputxik eta herritarrei eskaini nahi dizkie horiek guztiak.

Lehenago Argazkizale Taldeak 1990 urtean ateratako liburuan, eta Kalaputxik 2007 urtean argitaratu zuen lehenengo liburuan hainbat argazki plazaratu ziren gure herriaren eta herkieen lekukotasunak jasoaz. Liburu haien ostean dator liburu berria. Azken 17 urteetan mutrikuarrek Kalaputxin erakusteko utzitako 950 argazki bildu dira 15 ataletan, eta liburu honetan ere herriaren eta herritarren lekukotasunak paperean gordeta utzi nahi dira, etorkizuneko mutrikuarrek horien berri izan dezaten.

Liburua 20 eurotan salduko da honako establezimenduetan:

- Ansorregi zapata-denda (Erdikokale)
- Aparra jantzi-denda (Beheko plaza)
- Beristain liburu-denda (Goiko plaza)
- Sabina janari-denda (Goiko plaza)
- KaBe janari-denda (Atxitxin aldapa)
- Turismo bulegoa

Aurrerantzean ere mutrikuarrek utzitako argazki zaharrak biltzen jarraituko dugu, digitalizatu, gorde, eta hurrengo batean liburu berri bat osatzeko. Gure herriaren historiaren, istorioen eta pertsonen lekukotasunak denboran iraunarazteko. Etxean argazki zaharrak aurkitzen dituenak horiek herritar guztiei erakutsi nahi badizie, jar dadila harremanetan Kalaputxirekin:

Ansorregi zapatadendan

aldizkaria@kalaputxi.eus e-postan

edo **635748393** whatsapp-ean



AKERBELTZ ETXEAN DA VENEZIATIK BUELTAN

*Gutxi ikusi zaitugu
Aurten gure inguruan
Lagunak etxen ibili
Baitzera estranjeruan
Dantzan ein izotz gaiñian
Pasiaria barkuan
Autografo asko firmau
Al ditzuzu museuan?
Malenak ta Kalbaixuak
Galduitzuzu aurtenguan
Sorgina triste egon da
Mari ta Urtzin onduan
Nahiz badakigun ederki
Egon zarela kanpuan
Geratu gurekin eta
Ez zaitetz berriro juan!!*

Urtarrilaren 11n heldu zen Akerbeltz Venezia aldean egindako egonalditik. Mari, Urtzi, Sorgin, erraldoi lagunak, Txotxolo, Txoro, Alper eta Oker buruhandiak, konpartsakideak, kalejirakide diren txistu-lariak eta herriko ume, gazte eta helduek ongi-etorri beroa eman zioten, eta guztiek batera, alde zaharreko kaleetan zehar aspaldiko partez kalejira eta dantzaldi ederra egin zuten. Ongi etorri, Akerbeltz!



*Lankide bikaina
Zaintzaile goxoa
eta guztiokin esku zabala
Bihotz bihotzez, eskerrik asko!
Agur Mila!*



Mikel Deuna Erresidentziako langileak

DRUK

Ospatzeko, danakin ahaztutzeko, ausartzeko, penak atzian lagatzeko, askatzeko, itxotzeko... edozein aitzakixak balixo digu trago bat hartzeko. Hala, noizian behiñekua ohitxura billakatzen da, edan gabe bizitzia zer dan ahaztutzen zakun punturarte.

Druk pelikuliak —«Otra ronda»— kuadrilla bat aurkezten digu, beuran bizitzan aldaketa bat etxia erabakitzen deuenak: egunerokotasunian, momentu danetan alkohola edatia. Jokaera honek beuran bizitzia errotik aldatuko deu, gauza berrixak emanda eta aurretik zoenak kolokan jarritxa.

Alkohola gure bizitzian parte da, ezin leike ulertu gizartia bea gabe. Batzuetan, ezta beste pertsonekin ditzugun erlaziak ere. Eo geure buruakin dakaguna. Hortaz ohartuta, geure orekia billatu bihar deu, gure bizitzia danan gaiñetik jarritxa.

*«Ausartzia une batez norpean lurra galtzia
da; ez ausartzia, norpea galtzia»*



FITXA TEKNIKOA

Izenburua: Druk

Zuzendaritza: Thomas Vinterberg

Gidoia: Thomas Vinterberg eta Tobias Lindholm

Argazkia: Sturla Brandth Grøvlen

Aktoreak: Mads Mikkelsen, Thomas Bo Larsen, Magnus Millang

Urtea: 2020 **Iraupena:** 116 min.

PLEIBAK

Miren Amuriza



Miren Amuriza berriztarraren azken eleberrian protagonistak bere lagun min ohiari egiten dio bakarriketa. Jone eta Pollyren arteko laguntasun harremana haurtzaroan loratu zen, nerabezaroan nolabait mantendu, eta gaztaroan galdu. Harremanaren nola-baiteko errepasoa egiten du protagonistak bakarriketan, bizipenak kontatuta: droga, sexu-harremanak, ikasketak, festak, istripuak, politika...

Hizkera bizkorra eta kalekoa da. Badirudi protagonistak gehiegi pentsatu gabe botatzen duela barruan duena, hitz egiteko modua eta erabilitako hitzak gehiegi zaindu gabe. Horrela, idazleak kontaketa eritmoari eustea lortzen du hasieratik amaieraraino. Irakurleak gertuko sentituko du protagonista, bereziki 2000. hamarkada hasieran nerabe izan bazen, erreferentzia eta

anekdotak seguraski ezagunak egingo baitzaizkio.

Harremanak dira, baina, gertaera ororen atzean lantzen diren gaia. Familia-harremanak eta laguntasun-harremak, gehienbat. Harremanak, eta harreman horien gainbeherak, zehazki. Gainera, interesgarria da ikustea protagonistak ez duela gainbehera horietan izandako erantzukizuna ukatzen, eta auto-kritika ere egiten duela. Badirudi, baina, patuak idatzia duela laguntasun-harreman batzuen amaiera.

Mutrikuarrok, gainera, PLEIBAK bertso-saio literarioa izango dugu ikusgai urtarilaren 24an Zabielen, Miren Amuriza, MICE, Uxue Alberdi eta Ane Labakarekin. Izugarritzko aukera liburuaren inguruan solas egin eta hausnartzeko! Sarrerak, turismo bulegoan eta mutriku.eus atarian salgai (3 euro).

Pakita Itsaso Alberdi

Jostorratza eta haria dantzan

Eskola bukatu aurretik zuzendu zuten gurasoek jostun ikasketetara, baina etxean zuten lan nagusia ahaztu gabe: errekadista —mandatari— lana. Aitaren ofizioa hori zelako eta etxeko guztien eskuak behar ziren partiketa lanerako. Eskola uztean, amak mandatari lanen ardura utzi zion eta joste lanarekin batera, biak uztartzen zituen.

Josteko trebezia hori herrigintzan ari ziren taldeen eskura jarri izan du, Gure Ametsa dantza taldearentzat lehenengo eta Goizeko Izarra antzerki taldearentzat urte askotan. Jakina, dena musutruk.

Noiz hasi zinen jostorratza eta titarearekin jolasean?

Nire adineko beste ume guztiak bezala, eskolara joatea zen gure lana; baina gurasoek beti zeukaten presente eskola uzterakoan zein lanbide egokitu guretzat. Horrela, sasoi hartan jostea zen neskoi aurrerabide bat emango zigun ikasketa, eta, hala, Samielako eskola-orduak bukatzean josten ikastera bidaltzen ninduten jada hamabi urterekin. Era horretan, pare bat urte egin nituen Mutrikun, eta, eskola hamalau urterekin bukatzean, sasoi hartan «Corte y confección» zeritzon ikastaroa egitera bidali ninduten Debara —patronajea eta abar ikasten ziren—.

Baina, aita «errekadista» nuenez, lau urterekin hasita nengoen aita ekartzen zuen paketeria etxez-etxe partitzen, horixe baitzen etxean bizi genuena, eta familia osoaren eginkizun bihurtzen zena.

Aita errekadista. Gaurko gazteek ofizio hori zer zen ez dute jakingo. Esplikatuko al diezu aitaren lan hori zertan zetzan?

Aurrez esan behar, aita marinela zela eta itsasoa zuela lanbide bere eta familiaren bitzta ateratzeko alor. Zarautzen jaioa, aita ere marinela, arrasteran ari zena Pasaiaiko portutik. Hiru urte zituela aitaren barkua hondoratu egin zen, eta gizon guztiak bertan galdu. Maria Frantziska Soler, bere ama, zen errekadista lanak egiten zituena. 1948an hil zen amona urtebeteren bat eri egon ondoren. Orduan erabaki zuen aita, jada Mutrikun ezkondua, amak zuen ofizioan hastea.

Errekadistaren lana zen Mutriku, Deba edo Ondarroako herrietatik Donostiarekin loturak egitea. Paketeria bidali edo ekarri, paperak betetze kontuak egin, erosketa zein salmentaz bitartekari lanak... Hau da, mandatari lanak.

Lan hau egiteko orduko «La Esperanza» autobusa erabiltzen zuen Mutrikutik Debara, eta trenean Donostiara paketeria guztiarekin. 1970ean sasoi hartako «Citroen Dos Caballos» erosi zuen, mugikortasuna erraztu bidean. Hala ere, hasierako urteetan, gidatzeko konfiantza handirik ez, eta soilik Debara joaten zen kotxean, eta trenean Donostiara.

Garai hartako lan haiek gaurko egunean gazteek hobeto ulertzeko, esango nuke Amazonen partiketa-lanak ordukoen oso antzekoak direla.



Antzerkigintzan, jantziak josten eta janzen.

Zeintzuk ziren paketeria horietako bitxikeriak?

Donostian bizi ziren zenbait mutrikuarrek, adibidez, Laxaro abarketeruak egindako abarketak nahi izaten zituzten... Don Alejori eskatzen zizkieten Bataio Partidak... botikak farmazietarako... eta inguruko hoteletarako oso garrantzitsua izaten zen kafea. Hauek bitxiak baina ohikoak ziren, pentsa zenbat gauza berezi mugitzen ziren errekadistaren bitartez.

ARRIETA
AUTOZERBITZUA



Aliprox

J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

ASTIGARRAGA ANAIK, S.L.U



ERAIKETAK

Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938

e-mail: astigarragamutriku@outlook.es

Txurruka Tteak., 28 behea - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

Eskola bukatzean ardurak aldatu zitzaizkizun?

Ohikoa zen eskola bukatzean lan eskaintzak izatea gure adineko neska batentzat. Hala, neuk ere Egañanetik eta Bustonetik jaso nituen deiak, baina amak eskabetxean egiten zuen lan, eta, jubilazioa handik jaso nahi zuenez, esan zidan neu arduratzeko aitaren lanak eskatzen zuen beharrarekin, eta etxean egiteko joste lanekin. Eta, hala, nire ardura izan zen aita jubilatutako arte paketeria mugimendu harena: eskakizunak jaso eta eskura eramatea. Tarteko denborak josteari dedikatzen nizkion.

Ezkondutuen zinen, eta aldatu zitzaizun zizimodua?

Jakina aldatzen dela. Senarra ere itsasgizona izanik, zuzenean ezagutu ez, baina etxean maiz entzun izan nuen bizimodura egokitu behar izan nintzen. Etxea, umeak, lan gehigarri bat ziren, baina ezkon aurreko lanekin berdinean jarraitzen nuen: paketeriaren mugimendua eta jostea. Are gehiago, senarrak zeharo oker ateratzen zitzaizkidan bidaia bat egin zuen Uruguay-ra, eta han gelditu ziren ez etxera bueltarik, ez soldatarik. Diru sarrerak garrantzizkoak izanik, saiatu nintzen diru-sarrera berriak lortzen, eta zoria izan nuen Ondarroako denda baterako lana eman zidatenean, baita bi etxeren garbiketa-lanetan ere jardun nuen, senarra etorri eta bizitza normalizatzen hasi ginen arte.

Halako baten, herri ekintzetan ari ziren taldeekin ere dantzatu zenituen jostorratza eta haria...

Bai, familia hazita eta egoera ekonomikoa egonkortuta, herriko taldeei esku bat botatzeko prest agertu izan naiz. Gure Ametsa dantza taldea izan zen lehenengoa: oraindik gizonezkoen alkandora, tertziopelozko prakak eta txaleko gorriak bizi dira, baina mutilak falta dantzatzeko. Beranduago, nesken arropekin ere ibili ginen jostun talde bat udaletxe azpiko lokalean.

Hurrengo, Goizeko Izarra antzerki taldera hurbildu, eta makina bat jantzi egin izan ditut, batzuk arruntak, eta baita oso dotore eta apainak ere; Markesaren alaba antzezteko behar



Herrigintzan, Gure Esku-rako oihalak josten.

Amazon ez zegoenean geuk mugitzen genituen paketeak Donostiatik Mutrikura

zirenekin hasi eta auskalo zenbat obrarentzat egin behar izan nituen, batzuk lehengoak aprobetxatuz eta beste asko eta asko berriak eginez. Umeentzat, gizonezkoentzat, emazteentzat, neskakientzat...

Baina zure lana ez zenuen bukatzen joste lanarekin bakarrik...

Orduan, Antzerki Taldea herriz herri ibiltzen zen emanaldiak egiten, Gipuzkoaz gain, baita Bizkaia eta Nafarroan ere, eta, jakina, arropak jantzi bakarrik ez, nabarmendu ere egin behar ziren eta ezin falta emanaldietan, fokuak eta eszenategia bezala, plantxa eta bere taula.

Ni gustura nenbilen giro hartan beti atzeko lanak egiten. Baina halako baten Arantxa «Oikia»ri otu zitzaion atzeko lanez gain taula gainera ateratzen behar nintzela betelanak egitera, eta prestatzeko niretzako arropa ere. Ez zitzaidan asko kostatu, beti ere, ahoa ireki gabeko kontuak baziren, baina buru gogorra gure Arantxa, eta hara non jarri ninduen taula gainean esaldi batzuk bota beharrean. Makina bat entseatzeko lan egin nituen esaldi haiek era egokian botatzeko. Hala, nire aktore estreinaldia Amoroton eta Lekeition egin nuen Errauskineren bertsio moderno batekin.

Victoria Eugenia eta Kursaal antzokietarako ere egin duzu...

Bai. Hala gertatu zitzaidan. Bi zarzuelatarako eta opereta baterako arropak prestatzen ibili ginen 6-7 lagunekoko talde bat. Pare bat asteburutan egiten zituzten errepresentazioak, eta han arduratzen ginen garbitu beharrekoak garbitu eta plantxatzen behar ziren unerako. Arropa asko arrapaladan egin behar izaten genuen. Lan handia zen.

Modistillak ospatze lanetan ere ez zineten atzera gelditzen...

Hala esaten zuten. Eibarren, adibidez, herriko jai bilakatzen zen Santa Luzia Eguna. Guk geure gorabeherak izan ditugu; urte batzuetan olatuen gainean ibili ginen, eta mutrikuar talde bat Donostiara joaten ginen ospatzera: hotel baten afaldu eta bueltatxo bat emanez egiten genion gorazarre Santa Luziari.



ALAZNE OPTIKA



Kalapetatzen ikasten

Lanbide heziketan edo unibertsitatean ikasitakoak praktikekin osatzen dira ogibide batzuetan. Praktikal-dia ez da oso luzea izaten, baina, izenak berak dioenez, aukera ematen du ikasitako teoriatik praktikara jauzi egiteko. Sasoi batean Mutrikun ez zegoen ikasketa teoriko askorik, gaztetatik lana eginez ailegatzeko ziren profesional abila izatera. Horietakoak ziren kalapeteroak.

Orain bezala garai batean ere lan batzuk egiteko ikasketa espezi-fikoak egin behar izaten ziren herritik kanpo; esate baterako abade, irakasle, idazkari edo arkitekto izateko.

1619. urtean Mateo de Ascarça mutrikuarra Bergaran zebilen ikasten, *estudia al presente gramatica en la villa de Vergara con los padres de la compañía de Jhesus con intencion segun se entiende de ser clerigo en la yglessia parrochial*. Urte hartan beste herritar bat –Simon de Mizquia– ere bazebilen abade izateko bidean, *estudia al presente çiençia en la universidad de Oñate*. Urrunagora ere joaten ziren. 1617. urtekoa da aipamen hau: *el bachiller don Gabriel de Azterrica, estudiante, que al presente esta al estudio en la unibersidad de Salamanca estudiando Canones*.

Baina lanbide gehienetan ez zegoen ikasketa teorikorik. Hori normala da kontuan hartzen badugu herritar gehienek ez zekitela irakurtzen eta idazten. Gainera, mutrikuar askok “herentziaz” jasotzen zuten ogibidea. Ume-umetatik ikasten zuten ofizioa aita, ama, osaba edo amonarengandik. Gaztetatik jardunez gero, jakina, ezagutza handia eskuratzen zuten. Bakoitzak bere lanbidean.

Baina baziren, familiakoengandik jaso beharrean, lanbidearen sekretuak kanpoko aditu baten edo batzuen eskutik ikasten zituztenak. Praktikaldian zeuden bitartean “aprendizak” ziren, harik eta lanbidea ondo ikasi eta euren kontura lan egiteko abilezia lortu arte. Horrela ikasten zuten ofizioa txalupa-mutilek, hargin-mutilek eta bestelako *pintxeek*.

Kalapeteroak

Itsasontziak zurezkoak ziren sasoiaren itsas arotz ugari zegoen gure herrian. Horietako batzuek oso lan zehatza zuten: itsasontzien oholen arteko junturak ixtea, barrura batera urik sartu ez zedin. Han ibiltzen ziren portuko ontziolan, dinbi-danba, kasko guztiko junturetan estopa edo metxa sartzeko trintxa, eskoplo, gubia eta mazetak eskuetan hartuta. Lan hari Mutrikun *kalapetatzia* esan zaio, eta lanbide hartan zihardutenei, berriz, *kalapeteroak*.

Euskarazko hiztegiak jotzen badugu nekez topatuko ditugu hitz horiek. Horien lekuan *bikeztatu*, *biketu* eta *istinkatu* aurkituko ditugu.

Lehenengo hitz hori XVII. mendearen erdialdetik dokumentatzen da. Silvain Pouvreauk papereratu zuen aurreneko aldiz: “*bikeztatcea, poisser*”. Frantsesezko ordainak gaztelaniazko ‘impregnar’ ematen du aditzera. Manuel Larramendik (1745) ere jaso zuen bere hiztegi ezagunean: “*empegar, piqueztatu*” eta “*alquitrinar, breaztatu, piqueztatu*”. Euskaltzaindiaren hiztegiak *bikeztatu* eta *biketu* hitzak jasotzen baditu ere, ez dira zehatzak, bikeaz (*pikia*) gain beste zeozer ere sartzeko junturetan. Izan ere, lana ez zen bikea edo alkitrana ematera mugatzen. Likido horietan bustitako estopa sartzea zen kalapeteroen zeregin nagusia.

Euskaltzaindiak oraindik ez du jaso *istinkatu* aditza bere hiztegi arauemailean, baina sarritan irakurtzen da han eta hemen; oraintsuko arkitektura-hiztegiak, esaterako, *istinkatze(a)* jasotzen du ‘calafatear’ adierarekin. Larramendik jaso zuen lehenengoz hitz

hori: “calafetear, *istincatu*” eta “calafate, *istincaria*”.

Baina hitz horiek ez daude bizirik gure itsas portuetan. Euskararen Herri Hizkeren Atlasera (EHHA) jotzen badugu, gure itsas-bazterreko herrietan, 1987-1992 urte bitartean egindako inkestak bidez, batutako hitzen berri izango dugu.

Batetik, Mutrikuko *kalapetau* aditzaren antzekoak jaso zituzten: *kalapetau* (Deba), *kalapetatu* (Getaria, Orio), *galapetatu* (Orio), *kalafetatu* (Pasaia, Donibane Lohizune, Hendaia), *kalafateatu* (Hondarribia), *galafatie* (Bermeo), *galafatea* (Elantxobe) eta *kalapata* (Lekeitio).

Bestetik, hedadura txikiagoko formak jaso zituzten: *estopa* (Bermeo, Ondarroa), *estopatu* (Deba), *masillatu* (Pasaia) eta *kotonatu* (Donibane Lohizune).

Horien osagarri, aipa dezagun “*Léxico de los marineros peninsulares*” (1985) lana. 1964-1976 urteetan egindako inkestetan, aurreko datuez gain, hauek bildu zituzten: *mastukatu* (Hondarribia), *bria eman* (Getaria), *estopa* (Lekeitio) eta *kalafatea* (Ondarroa).

Hitz horietako batzuek kalapetero edo istinkariak erabiltzen zituzten materialei egiten diete erreferentzia: iztupa (estopa), masilla, kotoia (kontona) eta brea. Baina bistan dago *kalapetatu* hitzaren aldaerak direla nagusi. Azken hitz horrek tokiren bat izan beharko luke gure hiztegiak.

“Escritura de aprendiz”

Lanbide jakin batean trebatzeko, esan bezala, gazte bat instruktore edo maisu baten etxera joaten zen haren ofizioa ikastera. Lanbide gehienetan 14-16 urte inguruko gazteak izaten ziren, baina kalapeteroen kasuan apur bat zaharragoak izaten ziren 18-24 urtekoak. Beharbada lan hartarako garatutako gorputza izatea komeni zelako: beso laburrek landu beharreko oholetara ondo iristea eragotziko zieten eta.

XVI. mendeko Mutrikura egingo dugu salto. Orduan normala zen lanbide jakin bat ikasteko momentuan herriko eskribauaren aurrera joan eta bi aldeek arteko kontratua egitea, maisua batetik eta aprendiz edo ikaslea bestetik. Mutrikun bizi zen Santiago de Mendoça kalapetero ezagunaren eskutik, eta 1560-1580 urte bitarteko kontratuak (*escritura de aprendiz*) erabiliz egingo dugu ibilbidea.

1560ko apirilaren 13an Santiago de Mendoça maisua Joan de Yurre gaztearekin –*criado aprendiz*– hitzartu zen bere ofizioa irakasteko, *oficio de galafate*. Bi urte iraungo zuen praktikaldiak. Yurrek kalapetatzen lortutako irabazien erdia eman beharko zion maisuari. Kalapetatze barkurik ez zegoenean arrantza egitera joan ohi ziren kalapeteroak, hori suertatuz gero gazteak irabazitako heren bat, *la terçia parte*, emango zion Mendoçari. Hasieran, maisuak, lanerako erremintak eman beharko zizkion ikasleari: *dos o tres fierros e dos maços en el comienço*.

1563ko apirilaren 18an Mendoçak beste kontratu bat sinatu zuen Joan de Valladolid gaztearekin. Ez ziren mutrikuarrak, baina



Kalapetatzeko tresnak.

bertain zeuden lanean, *ambos estantes en la dicha villa*. Kasu honetan lau urterako hitzarmena adostu zuten, *le aya de enseñar e mosar el ofiçio de galafate*. Zehazten da itsasontzi berrietan, zein zaharretan trebatuko zuela ikaslea, *asi en las naos nuevas que galafetare, como las viejas que renobare*. Lan hori egitearren aprendizak ez zuen jasoko dirurik, dena izango zen maisuarentzat. Lanerako barkurik ez zutenean Valladolidetik itsasora joateko obligazioa izango zuen, *sea obligado a ir a la mar a pescar y en bñajes en nabios*. Maisuak emango zizkion arrantzarako tresnak. Maisuaren obligazioa: *alimentar e darle de bestir e calcar e remienta e macos e bestidos*. Ikasleak lau urte haietan ez zuen izango inora alde egiterik.

1567ko otsailaren 3an, Santiago de Mendoçak beste ikasle bat hartu zuen hiru urterako: Rodrigo de Licona mendexarra. Itsasora joanez gero ikasleak irabazien erdiak jasoko zituen eta maisuak beste erdia. Maisuak jaten emango zion, eta oinetakoak ere bere kontura izango ziren, *alimentarle e darle de calcar*. Arropak, berriz, Rodrigoren kontura. Hiru urteak pasatutakoan maisuak honako gauza hauek eman beharko zizkion trebatutako ikasleari: *unos bestidos de carisea calcones e tonellete e unos capatos e*

gorra e remienta de su ofiçio e dos maços.

Mutrikura kalapetero lana ikastera etorritako asko bertan geratzen ziren, eta bertan atera bizimodua. Horietako bat zen Rodrigo. 1570eko apirilaren seian Liconak obligazio bat sinatu zuen Domingo de Eguia mutrikuarrarekin. Licona Mutrikura ezkontuta zegoen eta jantziak erosteko lau dukat jaso zituen Eguiaren eskutik. Ez ziren edonolako jantziak, Ternuara bakailotan joateko jantzi bereziak ziren, *el viaje de Tierranoba a la pesca de bacallaos que ba por galafate*. Ordainetan Liconak Ternuan arrantzatutako karga bat bakailao ekarriko zion joan-etorriaren ostean, *una carga de bacallaos curado en Tierranoba*.

1567ko martxoaren 31n Santiago de Mendoçak Lekeition bizi zen Fini de Balentimor hartu zuen hiru urtez. Maisuak, *maestre galafate*, jan-edanak emango zizkion, *alimentos nesçesarios y todo el calçado que hubiere menester*, Finiri, *moço aprendiz*. Baita lanerako erremintak ere. Hiru urte horiek pasatutakoan hari ere jantzia eta tresnak emango zizkion: *un bestido de carisea azull e dos macos e su remienta*. Lan faltan itsasora joaten baziren, arrantza-aparailuak Mendoçaren kontura izango ziren, eta irabazi guztiak ere harentzat. Itsas bidaiak egiten bazituzten Finiren irabaziak erdibana izango ziren.

Fini ere, Rodrigo de Licona bezala, Mutrikura ezkontu zen. 1570. urtean "Domingo de Fini Tuço" izeneko batek Tomas izeneko semea izan zuen Mutrikun Luçia de Azterricarekin. Itxura denez Domingo hori eta Fini de Balentimor pertsona berbera da, segurutik jatorriz Irlandako Baltimore herrikoa.

1572ko martxoaren 25ean Mendoçak hiru urterako kontratua sinatu zuen Domingo de Ybarra mutrikuarrarekin. Maisuak jan-edanak emango zizkion eta lanerako erremintak. Eta, jakina, lanbidea ikasteko lana emango zion ikasleari, bai itsasontzi zaharretan, bai berrietan, *en hobras bñejas como en nuevas*. Hiru urteak pasatutakoan, ohitura zen bezala, jantziak eta erremintak emango zizkion: *una almilla de paño honesto y unos calçones de paño azul y una gorra de millan e mas dos maços e remientas de fierro para el dho ofiçio*.

Kontratuak zirauen bitartean ikasleak alde eginez gero, *si saliere o se ausentare*, ordura arte lan egindako denbora guztia galduko zuen eta berriro hasi beharko zuen lanean, beste hiru urtez, *sirba e comience a servir de nuevo, como si no hubiera comenzado a servir*. Txantxa gutxi orduan.

1573. urteko agiri bati esker jakin dugu Santiago de Mendoça Mutrikun egon arren lanean (*estante en Motrico*), berez Erandiokoa zela. Hortik tiraka, 1568ko abuztuaren 12an Santiago de Mendoça Erandion aurkitu dugu, Martin anaiarekin batera, 20 dukat ordaintzen Marcos de Nabas bilbotarrari. Zer ordaintzeko? Hamar kintal estopa, *diez quintales de estopa de Bretaña*. Estopa hura, segurutik, itsasontziak kalapetatzeko erabiliko zuten.

1580ko apirilaren 10eko kontratu batean Santiago de Mendoça agertzen zaigu berriro, baina agiri horretakoa aurrekoren izen-abizen bereko semea izan daiteke "el moço" bereizgarria dauka-eta. Domingo de Verastegui debarrarekin hitzartu zen bi urte eta erdirako, *por aprendiz de ofiçal galafate*. Bidaiarik eginez gero, ikaslearen irabaziak erdibana banatuko zituzten. Bidaiak nora egiten zituzten ere adierazten da, *en algun biaje que hiziere a Terranoba o Andaluzia o otra parte*.

Orduko itsasontzietan, segurtasunagatik, ezinbestekoa zen tripulazioan istinkari edo kalapeteroren bat eramatea. Konfiantzazko langilea zen kalapeteroa. 1573ko martxoaren 7an Domingo de Azterrica mutrikuarrak Martin de Echeberri donostiarrari utzi zion galeoia Ternuara joateko baleak harrapatzera. Galeoiarekin batera Azterricak konfiantzazko langileak "utzi" zizkion: *[h]a de dar con el dicho galeon su maestre y contramaestre calafate y carpintero*.



Kalapetatu beharreko junturak.

MENDEEK EZINA SUAK EGINA

Mutrikuko ate nagusia egon zen ondoko etxeaz gehiago ezagutu ostean, berriro gibelera eginez, abia gaitzen oraingoan Erdiko kalean barrena gure parte zaharren hegoaldera, Barrenkalera, hain zuzen ere. Kale horrek, bere laburrean, herriko zenbait familia agurgarrien etxeak bildu izan ditu mendeetan zehar beste maila apalagokoak ziren beste batzuekin batera. Gaurkoan, zuzen gaitzen horietako baten historia bertatik bertara ezagutzera, ea zer dioskun bizi izan duenaz. Horretarako, zer hobeto hura ernetzen zen ingurura gerturatzea baino?

Etxe hau, ezagutu dugun agiri zaharrenak argi adierazten digunez, jada XVI. mendean ba omen zen. 1604an mendebaldera zuen ondoko etxe jabeek hipoteka mailegu bat sortu zuten. Haren segurtasunerako jarritako etxearen deskribapenak ematen digu lehen aldiz ezagutzera goazen etxe horren lehen zantzuen berri, "...Barrencalean ditugun gure etxeak. Alde batetik, Joan Alegriaren etxeak ditu, eta bestetik, Maria Domingo Azcainenak...". Azken hori zen, hain zuzen ere, gaur karenka begira gauden jauregiaren ondoko orubean egon zen etxearen garai hartako jabea. Joan Azcain zuen aita, eta, Esteban Arizmendi Huelga-sekin ezkondu zenean, haren eskutik heldu zitzaion gurasoen etxera ezkontzean. Izandako lau seme-alabetan bigarrena zen Ana Bauphistak, Domingo Iciarrek ezkontuta, bide eman zion haien jatorri etxeak senitaratean jarraipena izan zezan XVII. mendearen azken laurdenaz geroztik. Haien egitasmoak bideratzen joan zitezen belaunaldi bakoitzak aldiro maileguak sortu izan zituen. Maileguetan, gaur ezagutzen ditugunez bestera, ordea, garai hartan hipotekatzen zituzten ondasunak aurrez hipotekatuak zirenak jar zitezkeen berriro bermetzat, maiz ageri denez. Sendi horretako kideek aldiro sortutako maileguek haiek zer ondasunen jabe ziren ematen digute ezagutzera; 1627an esaterako, "... Barrencalean duen bizitokia. Alde batetik, M^a Juan Ibarraren etxea du, eta bestetik, Domingo Asterricarena, aurre aldetik, aipatutako kalea, eta atzealdetik, berriz, karkaba. Mahasti bat Uzquitan (Azkiaga inguruan) eta sagastia Elorretan...". 1669koan ere ondasun berberak agertzen dizkigute, nahiz eta, denboraren joanaren eraginez, ezinbestean, ondoko etxeen jabeen izenak bestelakoak agertu "...Alde batetik, Antonio Zuazola Arrese eta Ana Bauphista Arano Michelena emaztearen etxeak ditu, eta bestetik, Angela Beduarenak...".

1669ko deskribapenean ageri zaigun Angela Bedua izeneko emakumea hizpide hartuta, balia dezagun egokiera hau gaur egun arte ondoan izan duen Olazarra-Mizquia jauregia eraiki aurreko garaira hurbiltzeko. XVII. mendearen hondarrean erabakita zuen, nonbait, Lucas Olazarrek haren ohoretasuna eta maila soziala agertuko zuen jauregi eder bat eraikitzeko asmo sendoa. Barrenkalea ikusi zuen, dirudienez, kokapenik egokien. Herrian zituen zenbait etxeren artean iparraldera jotzen duen aldean zeudenetako bat berea zuen. Troteaga harginarekin bat etorrita, alde horretan eraikitzea erabaki zuten. Beharrezko zabalerako orubea izan zezan, bere etxeak mendebaldera zituen bi etxeak bereganatzeko ahaleginean, tratuan aritu zen beste bi jabeekin. Berearen ondokoa Jacinta Jausororena zen, eta 1685ean idatziz jasotako trukean, "...Lucas Olazarrek ematen die (senar-emazteei) Achachin kaletik plazara doan kalean duen etxe bat; Jacinta Jausorok, berriz, trukean Lucas Olazarra kapitainari Barrencalean duen etxe bat. Alde batetik kapitainaren beraren etxe bat du, eta bestetik, berriz, Angela Beduarena...". Bedua andrearena aztertzen ari garen etxearen ondokoa zen. Handik hiru urtera hil zen, eta uste izatekoa da Olazarra kapitainak erosi edo tratu bere-tsua egingo zuela harekin ere. Agerikoa da, beraz, jauregia eraikitzeko



aipatutako hiru etxe, behinik behin, bazirela lerroan aurrean izan dugunaren ondoan.

Itzul gaitzen berriro Arizmendi-Iciar familiaren ibilbidera. Ana Bauphista Arizmendik eta Domingo Iciarrek izandako sei seme-alabetan zaharrena zen M^a Teresa, Joseph Andonaeguiarekin ezkontuta geratu zen bizitzan familiako etxean 1715ean. Izandako bi seme-alabetan zaharrena zen M^a Josepha alabak eman zion, halaber, segida etxeari Juan Bauphista Iturrizarekin ezkontuta. 1735eko uztailen elkarrekin bizi ziren M^a Teresa eta M^a Josepha ama-alabek betidanik jatorrizkoak izan zituzten ondasunak hipotekatuz beste mailegu bat sortu zuten. Alabak, emakume guztien gisan, haren aldekoa izanagatik, ezinbestekoa zuen garai hartan senarraren baimena horretarako "...Guipuzcoako Caracaseko Errege Konpainiarekin Indietara bidaian den senarraren baimen judiziala duela...", ezin operazio burutu ahal izan zezan. 1736an Mutrikun egindako etxeen errolda agirian M^a Teresa bera ageri zaigu jabe moduan etxe hartan bizitzen. Izandako seme-alaben artean Mutrikuko parrokiako apaiza zen Joan Antonio izenekoak hartu zuen etxea jabetzan, eta han bizi izan zen harik eta 1800ean 63 urterekin hil zen arte. Familia bereko seigarren belaunaldia osatu zuen etxe berean Jose Antonio Iturrizak, eta, zorraz zor, jatorrizko ondasunen jabe izaten jarraitu zuen azkenera arte.

Iturriza apaiza testamenturik egin gabe hil zenez, ia hogeitamar urtez luzatu zen prozesuari eman zion hasiera herriko justiziak. Alkateak

LEA-ARTIBAI

Hileta zerbitzuak - Beilatokia

MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20

ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

PAUSO

PODOLOGIA KLINIKA

943 01 49 05 - 747 43 48 52
Astillero Kalea 2 behe, Deba



izenik inon aurkitu ez diogun etxe horren ondasunen inbentarioarekin eman zion hasiera prozedurari. Hurrengo urtean herri agintariek Martin Uzin mutrikuarra izendatu zuten ondasunen zaintzaz eta hartzekodunei ordaintzeaz arduratzeko. Senideen artean oinordekoak ziurtatzeari ere ekin zioten, eta haien artean lau lehengusu onetsi zituzten. Ondasunak izan baziren arren, utzitako zorrek berehalakoan ekarri zituen hartzekodunak ere. Zorrak kitatzen joateko, etxea nahiz hari atxikitako lur sailak errentan emateko enkantera ateratzeko asmoa hartu zuten. 1801eko azaroan, "... etxea ez dago bizitzeko moduan, atzeko horma erdi erorita baitu eta oso egoera larrian teilatua, konponketak egin ezean guztiz erortzeko zorian baitago une honetan...". 429 errealean balioko oinarritzko lanak burututa enkantera atera zuten etxea. Sarre-rako solairuan artean salgai jarri gabe zeuden altzari, arropa, etxe tresna, eta bestelakoak gordetzeko hartu zituzten hiru gela. Horiek hurrengo urteko uztailean jarri ziren salgai, eta salmentatik 3.353 erreal atera zituzten; etxea Joaquín Bernardo Uzelai medikuak hartu zuen urtean 24 dukatuko errentarekin, bederatzi urterako. Gauza bera egin zuten Uzquitako eta Elorretako lur sailekin ere. Hala joan ziren gutxinaka kitatzen zorrak.

1829ko urtarrilean Francisco Xavier Echea ondasunen orduko ardura-dunak, eraikinaren egoera tamalgarria ikusita, Mariano Jose Lascurain arkitektoari eskatu zion beharrezko lanak zehatz zitzala txosten batean. Egindako ikuskapenak 1.468 erreal balio zituzten lanak zehaztu zituen. Txosten horrek agertzen digu etxeak, sarreraz gainera, beste bi solairu zituela eta ganbara teilatupean; aditzera ematen digu, halaber, haietako batean Jose Ignacio Larrea bizi zela eta bestean, berriz, Ignacio Iriondo, biak maizter. Arkitektoaren aburuz, "...eraikinak behar bezala iraun dezan, bizilagunek gaur zaintzen dutena baino garbitasun handiagoren beharrean dago..."

1831eko azaroan, ia hogeita hamar urte luzeren ostean prozesua bukatuta, zuzenekoak izendatutako onuradunak ordurako hilda zeuden guztiak. Haien seme-alaben artean barreiatu ziren ondasunak zati txikiagotan. Debako parrokiako apaiza zen Pedro Iturriza nabarmendu zen sakabanatutako zatiak biltzen erosketa bidez, guztiaren bi herenak bereganatzeraino. 1839an hil zen. Dakigunez, 1895eko jabetza agiri batean senarrarekin Mutrikun bizi zen M^a Josefa Echeverria debarrak zera dio "...hil zaidan Juan Jose Uranga Ansola nire senarrak erosi zion orain hogeita hamarren bat urte Martin eta Domingo Iturrizari etxe hori...". Juan Jose Uranga itziartarra emaztearekin Mutrikun jarri zen bizitzen. Badirudi, 1865 inguruan erosi zutela Barrenkaleko etxe hori. Izandako zazpi seme-alabetan, Hermenegildak, azken bigarrena zenak jaso zuen oinordetzan etxea. Hura Miguel Maria Subinasekin ezkondu zen 1892an, eta lau seme-alaba izan zituzten. 1935ean, Estanislao, haien seme gazteenak, jaso zuen aitarengandik etxea, eta 1955ean, berriz, M^a Dolores alabarengana heldu zen.

M^a Dolores Subinas, oraindik mutrikuar askok gogoan duten Don Ignacio Bereziartua mediku azpeitiarrarekin ezkondu zen XX. mende erdialdera, eta emazteak jabetzako etxearen karenka zuen eraikineko etxebizitza batera aldatu ziren bizitzera. Hamaika mutrikuar igaro zen haren kontsultatik. Deskribapenetan agertu zaigun teilatupeko ganbara hartan, ez dakigun garai batean, teilatua igo eta hiru etxebizitzako eraikin bihurtu zuten. Etxe hark jarraitu zuen bizitzaren berotasuna sentitzen. Dirudienez, XX. mendeko lehen erdian etxe horretako lehen solairuan Bonifacia izeneko jostuna bizi omen zen haren anaia batekin, haien ondotik Urreisti-Uranga familiak hartu zuen bizilekutzat. 50eko hamarkadaren amaieran, berriz, Urreizti-Bazterretxea sendia jarri zen bizitzen bertan. Bigarrenean, oster, Sanchez-Urreizti sendia finkatu



zen Elezgarai-Florestarrek utzi zutenean. Hirugarrenean, Ines Zenekorta eta ondorengo bi belaunaldi ere bizi izan ziren han. Gogora dezagun, halaber, eraikinaren sarrera mailan dauden geletako batean Francisco Lekube, herriko alkatea ere izan zena, ile moztaille edo bizargin gisan aritu zela bertan urte batzuetan.

Etxearen bizilagun berriak gertakari lazgarri batek astindu zituen aurtengo Malen egun goizean. Oihuak, garrasiak, izua, amaiera tragiko baten beldurrez. Goreneko balkoian ama-semeak etxea irensten ari zen suak harrapatuta, ihesbiderik gabe. Sirena uluak, urduritasuna, larritasuna, eta... poza. Bizia garaile atera zen. Urriaren 2ko egunsentian, berriz, burrunba izugarria. Bat-batean, zauriei eutsi ezinik bere baitan erori zen etxea.

Mende luzetan asko ezagututakoa zen etxe hori, ezbairik gabe, eta berekin eraman du isil-gordean, bizi izandakoa. Etxe horiek gure bizitzaren parte dira, horien inguruan ibili, olgatu eta bizi ere izan baikara. Mutrikuren herri oroimen kolektiboaren zati ditugu. Zaindu dezagun, beraz, arbasoek utzitako parte zaharreko etxe multzoa. Aurretik igaroz adi daiteke hark bizi izandako istorioen kontakizuna xuxurla isilean.

Jose Angel Lizardi Agirregomezkorta

Informazio iturriak:

Donostiako Elizbarrutiko Artxiboa
Mutrikuko Artxibo Historikoa. MUAH
Gipuzkoako Artxibo Historikoa. AHPG-GPAH
Eibarko Jabetza Erregistroa
Larrañaga J. (2023) Olazarra. Barrenkaleko jauregi barrokoa.
Kalaputxi 235, 14-15



ELGOIBAR - DEBA
optika audio
RPS 183/12

DEBA, Ostolaza 7 - Tel. 943 19 21 92
ELGOIBAR, San Frantzisko 21 - Tel. 943740359



ELORRETA
ERAIKETAK · ERREFORMAK · IGELTSERITZA

Asier Lersundi 680 579 961
Kepa Martínez 617 842 004

San Agustín, 4B
MUTRIKU
Tel./Faxa 943 60 43 97
elorretaeraiketak@gmail.com

ONIRIA

ametsak errealitate bihurtzen diren mundua

**Hainbat dantza estilori espazioa eman nahian sortuzen Oniria. Lagun artean sortutako ametsa errealitate bihurtu dute. Par-
taide ditugu Nerea Linder Gabilondo (1998) eta Ainhoa Aizpurua
Basurko (1998); sorrera eta ibilbidearen berri eman digute.**

Lurralde batetik bestera ohiturak, hizkuntza, kultura, eta dantzak asko aldatzen dira; baita azken horien esanahia eta dantza egiteko modua ere. Zer esanik ez, dantzariak erabiltzen dituzten jantziak eta dantzaren zergatia. Dantza bakoitzak esanahi historiko eta kultural zehatza izan dezake jatorriaren arabera. Izan ere, funtzio sozial berezia izan zuten garai batean, eta nortasunaren adierazle izan zirela ere aipatzen da.

Oniriaren sorrera

Lagun artean hazia erein eta 2023ko udaran ernatu zen Oniria taldea. Helburua, dantzaren inguruan dabilzanekin komunitate eraiki eta dantza estilo ezberdinak lantzeko espazioa sortzea. Herrian dantza tradizionalak lantzeko aukera badagoela ikusi zuten, ordea, beste aukerak ematea da taldearen nahia; «entseatu, ondo pasatu eta denborari etekina atera nahi genion. Herrian hutsune edo arrakala bat ikusi genuenez, hori betetzeko sortu zen dinamika hau». Herriarrek dantza praktikatu eta hortik taldea eratzeke nahia dute. Ametsak errealitate bihurtzen diren espazioa dela ere aipatu dute «ametsak, guk ulertzen ditugun bezala, dantzari dagokion espazioa ematea lirerateke, eta, noski, errealitate bihurtzea». Lagunen eta inguruko en babesa izan dutela adierazi dute taldekideek, hala ere, antolatutako dantza ikastaroetan inolako loturarik ez duten dantzariak ere gerturatu izan zaizkie; sare sozialen bitartez zabaldu baitute informazioa. Ondorioz, orain arteko jarduera guztiak aurrera atera dituzte.

Hainbat dantza estilo

«Zaila da dantza estilo jakin batean zentratu eta arrakasta izatea»; hori horrela, taldearen apustua hilean behin dantza estilo ezberdin bat lantzea izan da. Estilo bakoitzak erakartzeko duen gaitasunaren arabera jarraitzea edo aldatzea erabaki dute. Izan ere, dantza ezezagunek hori dute jomuga. Horretarako jendeari gerturatzea, probatzea, ausartzea eta izen ematea aholkatzen diote. Bultzatu nahi duten horrekin jarraituko dute «dantza estilo ezberdinak probatzeko espazioa sortzea da gure helburua eta jendeak lagunartean dantza praktikatzeko aukera izatea». Aurrera begira, baina, talde bat sortzea da nahia, dantza estilo baten zentratuta. Aurretik eskaintza zabala egin dute, hala ere, etorkizunean begirada norabide batean jartzea da asmoa. «Dantza garaikidearekin eman genion hasiera, ondoren urbanoa, latinoan eta bukaeran Twerk-a landu genuen. Azken honek izugarrizko arrakasta izan zuen». Hori horrela, irakaslearekin jarraitzea izateko bidea egin dute. Lotsa alde batera utzi behar den dantza dela diote Nereak eta Ainhoak eta herrian inpaktua izan zuela aipatzen dute. «Nahiko sexualizatua daukagun dantza bat da, egoera eta inguru baten ikusten dugun dantza da, eta ia beti emakumearekin eta sexualitatearekin lotzen dugu. Baina, hori ez da horrela: Twerk-a Afrikatik datorren dantza da, lurrari lotua eta emakumeak agintean zeudenei protesta gisa dantzatzeko zutena». Askotan dantzaren jatorria eta arrazoiak ez ezagutzeak dakarren ondorio bat dela aipatzen dute biek. Ezagutzen ez diren taldekideen artean, bestalde, sortu



den konfidantza eta harremana nabarmendu nahi dute Oniria taldeko dantzariak. Talde kohesioa landu dute lotsak alde batera utzita. «Elkar ezagutu gabe, bat-batean, konfidantzaz jokatzeko eta ondo pasatzeko lortu dugu. Eta, gainera, zerbait gehiago ikastera iritsi gara, noski».

Dantzarako ezaugarriak

Horrelako ikastaroetan izena emateko ohikoa da pentsatzea «nik dantzan ez dakit» edota «ez dut ezagutzen dantza estiloa»; aitzitik, «ondo pasatzeko gogoia da garrantzitsua eta lotsa alde batera lagatzeko gaitasuna besterik ez da behar ikastaroetan izena emateko. Gehienetan nekatuta bukatzen dugu, baina, era berean, lasaituta, terapia bat bailitzan». Dantza artea dela dio Nereak, eta norberaren gorputza adierazteko modua dela. Ainhoak, musikaren erritmora gorputza mugitu eta adierazten duzun hori guztia dela dantza, baita norbere burua ezagutu eta emozioak kudeatzeko baliabidea ere. Eta guztiaren gainetik gozatzea garrantzitsua dela diote biek. Horretarako espazioa sortzea ezinbestekoa da.

Lindi Hop hurrengoa

Musika Swing izenez ezagutzen badugu ere, dantza estiloa Lindi Hop bezala ezagutzen da. Datozen saioetan landuko duten dantza estiloa izango da. «Estatu Batuetan sortu zen musika eta dantza estilo hori, honek ere sustrai afrikarrak ditu eta nahiko dantza soltea da. Gu euskal dantzetatik gatoz eta, egia esan, nahiko kostatu zaigu gorputza erritmo horietara askatzea. Baina, bai, aurrean estilo hori aurrera eramateko apustua egin dugu». Oniria taldekoek hilero eskainiko dute saioaren bat. Larunbatetan egin ohi dute, eta otsailerako ere Twerk-eko saio trinkoa ematea daukate aurreikusita. Irakaslea Ikerne Mendieta izango da. Aurretik ere bera izan zuten gidari «dantzari adituak izan ditugu irakasle eta hori estimatzen dugu». Horrez gain, beste saioetan hauek izan dituzte irakasle: Garazi Etxaburu Aulestia dantza garaikidean; Anepe Acedo dantza urbanoan; Ikerne Mendieta Uskola Twerk irakaslea; Arantza Uranga dantza latinoan; eta Ines Uriarte Lindy Hop estiloan. Epe luzera talde egituratua sortu eta astearen behin edo hilean behin dantza entseguak egin nahiko lukete. Estilo gehiago jorratzea ere bada helburua, beti ere malgutasuna mantenduz.

MUTRIKU MARKET

merkataritza elektronikorako plataforma

Urtarrileko azken astean Mutrikuko Udalak «market place» berritzaile bat jarriko du martxan tokiko merkataritza bultzatu eta modernizatzeko: Mutriku Market merkataritza elektronikorako plataforma, non herriko establezimenduek beraien produktu eta zerbitzuak online eskaini ahal izango dituzten. Ekimen honen bitartez, udalerrriak aurrerapauso bat emango du bere saltokiak aro digital berrira egokitzeko eta kontsumitzaileen erosketa-esperientzia hobetzeko.

Mutriku Market plataformaren helburua, Mutrikuko merkataritza-sarea indartzea da; merkatariek irismena handitu eta kontsumitzaile gehiagorengana ailegatzeko aukera izan dezaten, bai tokian-tokian bai udalerritik kanpo. Plataforma horrek online merkataritzarako sarbidea demokratizatu nahi du, negozio txikiei beren produktuak ingurune digital batean saltzeko aukera erraztuz.

Plataforma berri honek ez die soilik saltokiei mesede egingo, izan ere kontsumitzaileei ere zuzeneko abantailak ekarriko baitizkie. Erabiltzaileak erosotasunez sartu ahal izango dira beren gailuetatik bertako produktuen katalogo zabal batera, Mutrikuko saltokiek bereizgarri duten kalitate eta hurbiltasun bermearekin. Gainera, erosketa esperientzia erraz eta seguru batez gozatu ahal izango dute.

Mutriku Market tokiko merkataritzaren etorkizunaren aldeko apustua da. Proiektu honekin, gure saltokiek merkatu digitaleko eragile handiek dituzten aukera berdinak izatea nahi da, gure herria bakar egiten duen esentzia galdu gabe. Hori horrela, Mutriku Market-en emaitza dira hauek: www.mutrikumarket.com webgunea, Mutriku Market izeneko Whatsapp bidezko txat-a eta Merkatu plazan jarri diren armairutxoak.

Interesa duten erabiltzaileek QR kodea eskaneatu besterik ez dute egin behar (kodea orri honetan, webgunean, buzoiko esku-orrian eta Merkatu Plazan eskuragarri). Kode honek Mutriku Market deituriko Whatsappeko txatera bideratuko ditu erabiltzaileak. Behin txatean sarturik, hizkuntza hautatu eta kondizio eta baldintzak onartzea besterik ez dute egin behar abantaila guztiez gozatzeko.


Whatsap honek, direktorio komertzial modura funtzionatzeaz gain, abantaila asko eskaintzen ditu.

Batetik, erabiltzaileek Mutriku Market-en atxikiturik dauden saltokiei buruzko informazioa modu errazean eskuratu dezakete, eta «klik» bakar batean saltokiarekin harremanetan jarri, hauen zerbitzu zein produktuen katalogoa bisitatu eta, nahi izanez gero, nola ez, erosketa egin.

Bestetik, tokiko dendariek Whatsapp honetan modu azkar eta zuzenean partekatu ahal izango dute berrikuntzei, deskontuei eta kanpaina bereziei buruzko informazio garrantzitsua.

Mutrikuko Udalak ekimen hau bultzatzen jarraitzeko asmoa du, plataformaren funtzionalitateak hedatu eta herriko denda gehiagoren artean erabilera sustatzeko. Mutriku Market-ekin bat egin nahi duten saltokiek erraz dute: <https://mutrikumarket.eus/> estekan sartu, *nire denda atxiki* sakatu, ezarritako baldintzak betetzen dituen ziurtatu, *atxikitze-eskaera* inprimakia bete eta turismo bulegoan aurkeztu.

Ekintza honekin, Mutrikuk tokiko merkataritzarekin, berrikuntzarekin eta garai berrietara egokitzearekin duen konpromisoa erakusten du, digitalizazioa aukera bat dela ziurtatuz, eta ez negozio tradizionalentzako mehatxu bat.



....ZORIONAGURRAK....



ANARTZ

Zorionak Anartz!!!!
Dagoeneko 8 urte
hauundii. Mila mila muxu
Illart, aita eta amatxon
partez. Maite zaitugu!!!



ELENE

Zorionak zure 6garren
urtebetetzean!
6 muxu Baptiste eta
Gaelen partez.



BAPTISTE eta GAEL

Zorionak gure etxeko bi erregeei!
Urtarrilaren 6an Baptistek 8 urte eta urtarrilaren
12an Gaelek 5 urte beteko dutelako.



EKHI

Zorionak Ekhi! 365 egun
ein ditzugu dauaneko.
Matxe-matxe!



NORA eta MALEN

Zorionak bikote!!
Batek 7, bestiak 11!!
Piloo bat kandela!
Eta zenbat abentura?
Muxuu haundi-haundi
bat etxeko danon
partez!



OIER

Zorionak gure etxeko
txikixai irribarrez
beteriko 4 urte
betetzean! Muxu handi
bat bereziki Markel,
Maialen eta
Kimetzen partez!



AIORA eta KATTALIN

Zorionak gure etxeko bi poxpoliñei!!!
Matxo handi bana txorixen kabitxik!!!!




ELAIA

Urtarrilak 30 osteguna
etxeko txikixan
urtebetetze eguna
sei urteko neska alai ta
txapelduna
pozez ospatuko
deguna!
Matxe matxe!



UDANE

Zorionak pitxin!
Dagoeneko 8 urte!
Patxo handi bat
etxekuen partez eta
bereziki Argiren partez!



LAGUNA

Zorionak!
Aspaldiko afari hori
nahi dekenean!
Hirean edo nirean.



LAGUNA

Urte Berri On, lagun!
Eta datorren urtean
jarrai dezagun
laguntasunaz
gozatzen!

ZORIONTZEKO eta ARGAZKI ZAHARRAK ERAKUSTEKO

ansorregi oinetakoak #
aldizkaria@kalaputxi.eus #
whatsapp 635748393



ANSORREGI
oinetakoak

erdiko kalea 9
mutriku
943 60 33 42
agerretxo@gmail.com



Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia

Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

Argazki Zaharrak



Club Deportivo Mutriku, 1970-71 denboraldia

Luis Mari Ortiz de Landaluze, Miguel Usandizaga, Etxabe zarauztarra, Juan Jose Azkue «Potxero», Antonio Agirregomezkorta «Txartxa» eta Iñaki Larrañaga «Txilenua»; Javier Urreisti «Morokil», Compostizo eibartarra, Damian Usandizaga, Ramon Basurko «Txanbel» eta Enrique Arreitunandia.

Argazki zaharrak erakutsi nahi?

>>> E-posta: aldizkaria@kalaputxi.eus >>> Wathsapp: 635748393 >>> Eskura: Ansorregi zapata dendan

**Zuk ereindako hainbat hazik
herrian bizirik diraute
eta gure Kalaputxik, 23 urte geroago,
ere bai.**

Eskerrik asko, Xiri!



URTARRILA

Larunbat goizean: (1) Lasuen-Elezgarai; (2) Lon Apraiz

astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna	ostirala	larunbata	igandea
20 Burgoa	21 Burgoa	22 Burgoa	23 Burgoa	24 Zalduegi	25 Zalduegi (1)	26 Zalduegi
27 Lon Apraiz	28 Lon Apraiz	29 Lon Apraiz	30 Lon Apraiz	31 Lasuen Ele		

OTSAILA

Larunbat goizean: (1) Lasuen-Elezgarai; (2) Lon Apraiz

					1 Lasuen Elez	2 Lasuen Elez
3 Zalduegi	4 Zalduegi	5 Zalduegi	6 Zalduegi	7 Burgoa	8 Burgoa (2)	9 Burgoa
10 Lasuen Ele	11 Lasuen Ele	12 Lasuen Ele	13 Lasuen Ele	14 Lon Apraiz	15 Lon Apraiz	16 Lon Apraiz
17 Burgoa	18 Burgoa	19 Burgoa	20 Burgoa	21 Zalduegi	22 Zalduegi (1)	23 Zalduegi

EGUNEKO GUARDIA ZERBITZUA

09:00 - 22:00
Larunbat goizetan 09:30-13:00
Igande goizetan 11:00-13:00

Lasuen-Elezgarai.....626 611 392
Lon Apraiz.....630 055 097
Hiart Burgoa (Deba)667 338 890
Amaia Zalduegi (Deba)... 669 262 201

GAUEKO GUARDIA ZERBITZUA

22:00 - 09:00
Mikel Lekunberri Alberdi...943 20 42 30
Isasi 31, 20600 Eibar

URTARRILA

- 24** · 18:30 Zabel Miren Amuriza Pleibak bertso saio literarioa
- 17:30 Luaro Gizonak feminismoarantz (Lotune)
- 25** · 10:30 Boxeo tailerra (Lotune)
- 27** · 10:15 Luaro Txi-Kung ikastaroa (Lotune)
- 28** · 17:00 Luaro Gorputz terapia (Lotune)
- 30** · 19:00 Zabel Hil arte bizi tailerra. Aurkezpena.

OTSAILA

- 1** · 10:30 Herrian Santa Eskea
- 3** · **10** · **17** · **24** · 10:15 Luaro Txi-Kung ikastaroa (Lotune)
- 4** · **18** · 18:00 Luaro Mutrikuko Komunitate Energetikoa
- 7** · **21** · 18:00 Zabel Mugimendu feminista eta transmaribolloa marxismo-feminismotik
- 11** · **25** · 17:00 Zabel Gorputz terapia (Lotune)
- 13** · 18:00 Zabel Mutrikuko Mugikortasun Planaren aurkezpena

EGAÑA PILOALEKUAREN INAUGURAZIOA

- 14** · Arratsaldean Egaña pilotalekua Inaugurazio-ekitaldia
- 15** · Arratsaldean Egaña pilotalekua Pilota jaialdia
- 16** · Iluntzean Egaña pilotalekua ITOIZ udako sesioak dokumentala
- 17-28** · Zabel Erakusketa: Bollogia. Euskal Herriko bolleron mugimenduaren genealogia bisual bat, 1977-2010

BISITA GIDATUAK

· Zazpi hondartzak · Mutriku marinela · Olatu planta ·
· Nautilus, Flyscheko fosilak · Arrietakua jauregia ·
Turismo bulegoan edo www.geoparkea.eus helbidean

ODOLA EMATEA 2025

otsailak 21

otsailak 21 · apirilak 25 · ekainak 20 ·
abuztuak 8 · urriak 17 · abenduak 19

17:00etatik 20:30ak arte anbulatorioan



Gipuzkoako Odol Emaileak

aldizkaria@kalaputxi.eus
whatsapp 635748393
otsaileko aldizkarian
argitaratzeko
otsailaren 7rako
bidali zuen mezuak

MENDI-IRTEERAK 2025

- Otsailak 23** Sagardotegia (Burumendi MT)
- Martxoak 23** Urkiola – Leintz Gatzaga. (Artibai MT) Ur banalerroaren bidea
- Apirilak 6** Landa – Ozaeta (Artibai MT) Ur banalerroaren bidea.
- Maiatzak 18** Sunbilla – Mendaurre – Sunbilla (Aurrera MT)
- Ekainak 1** Arnoko XIX. Mendi Ibilaldia (Burumendi MT)
- Ekainak 15** Brinkola – Biozkornia – Arantzazu. (Burdinkurutz MT)
- Uztailak 6, 7 eta 8** Pirinioak
- 7 > Sallent – Musales – Ibon del Respumoso – La Sarra – Sallent
- 8 > Sallent – Pazino – Escarilla.
- Irailak 7** Bizkarreta – Urepel. Ezkabako ihesaren azken etapa (Burumendi)
- Urriak 19** Arrankudiaga – Goikogane – Ganekogorta – Alonsotegi (Aurrera)
- Urriak 26** Euskal Mendizale Federazioko XLIII. eta Gipuzkoako Mendizale Federazioko XXXIX. Mendizale Helduentzako Ibilaldia (Burumendi MT)
- Azaroak 16** Samiño – Izazpi – Mandubia (Burdinkurutz MT)
- Abenduak 14** Mutrikun. Urteko azken txangoa (Burumendi MT)



*Euskarak egiten gaitu
herri euskaldun*



Mutrikuko Udala

Igualatorioarekin eta
Osakidetzarekin
lan egiten dugu



Audioprotesista
egunero zentroan
Audiometriak doan

OPTIKA VITORIA

O P T I K A • A U D I F O N O A K



ERRBERA 16 • 48700 ONDARROA • 946134138 • mvitoria@cnoo.es

MUTRIKUKO KOMUNITATE ENERGETIKOA LEHEN SAIOA OTSAILAK 4 • 17:30 • LUARDO



Mutrikuko Udala

Aurrematrikulazioa
Otsailaren 3tik - 14ra

Gure ametsetako eskola.
Euskalduna, publikoa,
denona, denontzat!!!



Zatoz gu ezagutzera!
Urtarrilaren 29an 17:30ean
Otsailaren 3an 17.30ean

ikastola@goizekoizarra.eus
T.943899152

baikara



GOIZEKO IZARRA IKASTOLA